UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA

OIASSO MUSEOA
Irun



1

FILM DOKUMENTALA IKASLEEKIN IKUSI AURRETIK IRAKASLEAK IRAKURTZEKO

2

FILM-DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

3

FILM DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

FICAB

1

FILM DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI
AURRETIK IRAKASLEAK
IRAKURTZEKO



FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza: Aizpea Goenaga
Hizkuntza: Euskera
Subt: Euskara, Castellano.
2023, 30'

SINOPSIA

Emakume arkeologoak Gipuzkoan programak XX. mendearen hasieratik gaur egunera arte Gipuzkoan arkeologia garatzen lagundu duten emakumeen historia berreskuratzen du. Bere testigantza, esperientzia eta aurkikuntzen bitartez, film laburrak ahanzturatik erreskatatzen ditu lurraldeko ondarea ezagutu eta zaintzeko funtsezkoak izan diren arkeologo belaunaldiak.

Mende bat baino gehiagoko ikerketa arkeologikoaren ibilbidea da, eta haren ekarpenak balioan jartzen ditu, haren aitorpena aldarrikatzen du, eta erakusten du emakumeak diziplinan sartu izanak gure iraganari buruzko begirada zalantzan jartzea eta zabaltzea ere ahalbidetu duela.

1

FILM DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI
AURRETIK IRAKASLEAK
IRAKURTZEKO

Zer da arkeologia?

Arkeologia gizateriaren iragana aztertzen duen zientzia da, pertsonek utzitako hondar materialen bidez: eraikinak, objektuak, hezurrak edo elikagai hondarrak.
Historiak testu idatzietan oinarritzen den bitartean, arkeologiak dokumentu idatzirik utzi ez zuten garaiak eta gizarteak ere ezagutzeko aukera ematen du, lurpean gordetakoaren bidez eguneroko bizitza berreraikiz.



Landa-lana: indusketa

Induskatzea ez da “altxorrak bilatzea”, baizik eta lurraren geruza bakoitza (estratigrafia) eta agertzen den objektu bakoitza zehaztasunez dokumentatzea, bere posizio zehatza idatziz. Geruza bakoitzak iraganeko une jakin bat adierazten du, eta ordena erregistratu gabe aldatzeak informazioa betiko galtzea eragin dezake. Horregatik, pazientzia, marrazketa teknikoa, argazkigintza eta neurketak indusketa bera bezain garrantzitsuak dira.

Indusketaz haratago: laborategia

Induskatzea ez da “altxorrak bilatzea”, baizik eta lurraren geruza bakoitza (estratigrafia) eta agertzen den objektu bakoitza zehaztasunez dokumentatzea, bere posizio zehatza idatziz. Geruza bakoitzak iraganeko une jakin bat adierazten du, eta ordena erregistratu gabe aldatzeak informazioa betiko galtzea eragin dezake. Horregatik, pazientzia, marrazketa teknikoa, argazkigintza eta neurketak indusketa bera bezain garrantzitsuak dira.

1

FILM DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI
AURRETIK IRAKASLEAK
IRAKURTZEKO

ARKEOLOGIARI BURUZKO OHAR BATZUK

HASTAPENAK



1903

LEHENENGO EMAKUMEEN IRUDIAK GIPUZKOAKO ARKEOLOGIAN

Gipuzkoako lehen indusketa arkeologikoak 1892an egin ziren, Lersundi kondearen eskutik, Aizpitarte kobazuloetan, Errenterian. Alfontso XIII.a erregearen bisitaldia zela-eta 1903an hartutako irudian, dagoeneko ikusten da lantaldean bazela emakumerik.

1917

MARÍA LUISA ARANZADI, ITZALETAN LANEAN

1917. urtea, Aralar: Telesforo Aranzadik, Jose Miguel de Barandiaranek eta Enrique Egurenek osatutako taldeak eman zion hasiera Gipuzkoako arkeologiaren garairik distiratsuenetakoari.
Nahiz eta inon ez aipatu... lehen kanpaina horietan, emakumeak lanean aritzen ziren: Luisa Aranzadi, Telesfororen familiakoa.



1

FILM DOKUMENTALA
IKASLEEKIN IKUSI
AURRETIK IRAKASLEAK
IRAKURTZEKO

ARKEOLOGIARI BURUZKO OHAR BATZUK

1983-1986

Idazkerak Historiaren eta Historiaurrearen arteko muga ezartzen du. Arekeologiak garai historikoak aztertzen ditu, eta Historiaurreak, izenak dioen bezala, aurreko aldiak ikertzen ditu. Gipuzkoan idatzitako lehen aipamenak erromatar garaikoak dira (duela 2000 urte).



ETA ALDAKETA IRITSI ZEN

2


FILM-DOKUMENTALA
IKUSI AURRETIK
IKASLEEKIN EGITEKO
LANA

Landa-lana da ikerketa arkeologikoaren prozesu nagusia. Baina aurkikuntzak interpretatzeko beste zientzia osagarri batzuk erabiltzen dira.
Bitxia bada ere, zientzia osagarri horiek gehienbat emakumeek hasi eta garatu dituzte Gipuzkoan.









EMAKUME ARKEOLOGO GARRANTZITSU BATZUK


MILA ESTEBAN


ANA MARIA BENITO


LOURDES HERRASTI


MERTXE URTEAGA


ANA URIZ


MARÍA JOSE IRIARTE


MARIAN GEREÑU


LYDIA ZAPATA


BEATRIZ HERRERAS

EMAKUME ARKEOLOGO GARRANTZITSU BATZUK


MIREN AYERBE



PIA ALKAIN


SONIA SAN JOSE


NEREA SARASOLA


MIRIAM CUBAS


AMAIA ARRANZ


MIREN GARCIA DALMAU


ZOHARTZE GALAN

3

FILM DOKUMENTALA
IKUSI ONDOREN
IKASGELAN EGITEKO
LANA

ZEIN DA ARKEOLOGO EMAKUME HAUEN ESPEZIALITATEA?:

1. ERROMANIZAZIO ETA ERROMATAR ZERAMIKA
2. URPEKO ARKEOLOGIA
3. MEMORIA ARKEOLOGIA
4. ARKEOMETALURGIA ETA HIRI-ARKEOLOGIA
5. SEDIMENTOLOGIA ETA PALEOKLIMATOLOGIA
6. ARKEOBOTANIKA ETA PALINOLOGIA
7. AINTZINAKO ARKEOLOGIA ETA ARKEOLOGIA HISTORIKOA
8. ARKEOBOTANIKA
9. INDUSTRIA-ONDAREA ETA MEATZE-PAISAIA
10. XVI.ETA XX. MENDEETAKO DEFENTSA-ARKEOLOGIA
11. ERDI AROKO HERRIAK ETA GOTORLEKUAK
12. BURDIN AROA ETA ARKEOMETALURGIA
13. GIPUZKOAKO ERDI AROA
14. NEOLITO-BRONTZE AROKO ZERAMIKA
15. ARKEOBOTANIKA
16. ERDI AROA ETA ARO MODERNOA
17. ERROMATAR GARAIKO ETA ERDI AROKO OINETAKOAK



3

FILM DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA



1. **Zerk ezartzen du HISTORIA eta HISTORIAURREAREN arteko muga?**

- [ ] Erlijio katolikoak
- [ ] Idazkerak
- [ ] Medikuntzaren asmakuntzak

2. **Zer indusen ari dira honako irudian?**

- [ ] Itsas-ontzia
- [ ] Dolmena- Trikuharria, ala
- [ ] Eliza zahar baten arrastoak



3

FILM DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

3. **Nortzu dira...?**

1. Pilar Sansinenea,
2. Dolores Etxaide
3. Eta Ana Maria Muñoz Amilibia







1971ean atera zen argazki hau. Gabonak ziren. Irungo Ama Xantalen ermitan, Jaime Rodriguez Salisek ahalbideratu zuen indusketa hau.

4. **ZER AURKIKUNTZA EGIN ZUTEN XANTALENEN?**

- [ ] Termak
- [ ] Nekropolia
- [ ] Erromatar portua



3

FILM DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA



5. **Unibertsitateko irakaslea izateaz gain Arbium (Zarautz)industu zuen, erromatar munduaren aztarnak topatuz.**
Badakizu zertan bereziki zer ikertu zuen?

- [ ] Erromatar txanponak
- [ ] Erromatar zeramika
- [ ] Erromatar jantziak

6. **Euskal arkeologian argazki hau garrantzi handikoa da. Zergatik?**

- [ ] Koadrila osoa joan zelako industera.
- [ ] Hemen hasi zirelako espezialitate ezberdinak aplikatzen indusketan eta ondorengo ikerketan.
- [ ] Neurketarako beharrezkoak diren sokak ondo jartzea lortu zutelako.



3

FILM DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

“EMAKUME ARKEOLOGOAK GIPUZKOAN” FILMA IKUSI ONDOREN…

1. Zer iruditu zaizu emakume arkeologo hauen testigantza? Zer ikasi duzu?
2. Arkeologo bakoitzaren lorpenak nahikoa ezagutzen direla uste duzu?
3. Zergatik uste duzu direla emakume arkeologoak ikustezinak?
4. Dokumentalean agertzen diren emakume arkeologoek zer zailtasun izan dituzte bere lanbidean? Aipatu batzuk.
5. Zergatik da garrantzitsua emakumeen ekarpenak berreskuratzea zientzia eta historian?
6. Emakume izateagatik aurre egin behar izan dieten oztopoak oraindik ere existitzen dira gaur egun?



3

FILM DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

JARDUERA:

1. Idatzi gutun bat dokumentalean agertzen den arkeologo bati, bere lana eskertuz.
2. Egin txosten labur bat emakume batek zuzendutako indusketa arkeologiko baten inguruan.
3. Idatzi artikulu bat edo berri labur bat emakume arkeologo baten lana edo aurkikuntzari buruz. Esate baterako, Amaia Arranzek historiako ogirik zaharrena topatu izanari buruz

